

GURE GEZURRAK

IBAIERTZ

Gure gezurrak pilatzen dira
 nola zabor kiratsak zubipean,
 nola laino gizen-mozkorak zeruan,
 nola isla zurbil-urrutikoak itsas beltz-sakonean...

Gezurra da gure ogia,
 gezurra maitemindu faltsoa gauean
 istant xorgin, sentsual, azkengabea,
 gezurra jaioberria den haurarentzat bizia,
 gezurra,
 negarra,
 zorigaitza,

gezurra promesetan mutilak neskatzari
 Urumea ondoko tamarindoen lo berdepean,
 gezurra nere hibaiak its berdezko sabelpean,
 arroketako olatu zakarretan.

Gezurrak asko dezake,
 askatasuna, zoria, aberria, amorea
 eskura dezake,

gezurrak asko dezake,
 diruaren truke
 bakea, justizia, atsedena, geroko zerua,
 —tentamen zoroa!—
 eskura dezake,

Gezurra beharrezkoa da, gezurrarik gabe
 ez da etxe,
 ez amore,
 ez diru,
 ez bake.

Herri guztiek ohorea gezurraren truke
 eman ohi dute,
 gezurrak iturriko katilu hotzean legez
 zorionaren likor busti-lodia ematen dute,
 ematen adiskide,
 egia beti gezurraren truke.

Nere egia gezurrak jan du,
 amorrainak errekan eskailua bezela,
 gaiztoa zelako, gordina zelako,
 molestaten zuelako.

Gezurrak guztia dezake,
 bere ahalmenez, boterez
 sareak eta hesiak erraz desjosten ditu,
 gezurrak alegriazko irrintziak boulevardetan
 erraz botatzen ditu,
 gezurrak gure ezpainetan behar-beharrezko irriak
 jarrarazten ditu,
 (behar da obeditu).

Baina gezurra ustela da,
 ez da ezer,
 ez hitz, ez lauso,
 ez baster,
 gezurra Urumearen hitz berde ustela bezela
 agoniz doa
 uretan laster,
 gezurra
 ez da ezer...,
 gezurra gure zintzotasunaren itsasoan itoko da,
 gezurra deuseztuta geldituko da egiaren kontra,
 herriaren aurka,
 gezurra ez da ezer...